

SUBEA ETA BEYA.



Sube bat sartu zan bein
 ukullu batera,
 beya non zan jakinik
 bularra eratera;
 ala kurpildurikan
 atzeko ankatik
 errapia zupatzen
 ari zan gogotik;
 beyak zuben ustia
 umia zeukala
 ta esnia eraten
 uzten ziyon ala,
 banan subeak naiko
 eran ziyonian,
 kozk eginik igasi
 joan zan zuzenian:

beyak onaze gogor
 ura sentiturik,
 asi zan ostikoka
 denak autsi nairik,
 eta kulpa gabeko
 chekor bat jorikan
 lurrera bota zuben
 korde gaberikan.

.
 Askok egiten dute
 sube ark bezela
 gauza char bat eginik
 igas beriala;
 eta gero ondoren
 au oida gertatzen:
 kulparikan gabiak
 dubela pagatzen.

JOSÉ ARTOLA.

